

## ESPAINIAKO FOKOLAREEN MUGIMENDUA EDO MARIAREN OBRAREN HAURTZAROAREN ETA NERABEZAROAREN ONGIZATE SUSTAPENENERAKO ETA BABESERAKO ADIERAZPENA

Apirila 2016

Fokolareen Mugimendua edo Mariaren Obra ebanjelioko balioetan oinarritzen den eta senidetasun unibertsalaren eraikuntza helburu duen nazioarteko elkarte bat da. Bizitzaren lehenengo etapetatik hasita pertsonaren garapen osoan konprometituta dago. Horrek, hazkunderan zerikusia duten alderdi guztiak aintzat hartzera darama: psikologikoak, giza mailakoak, erlijiosoak, kulturalak. Hainbat jardueren bitartez pertsonaren heziketa osoa, bere identitatean aitortua, sustatzen du.

Hautzaroaren eskubideei buruzko itun eta araudiekin bat egiten du, nazioartekoak nahiz naziokoak izan, Eliza Katolikoarenak eta baita Fokolareen Mugimenduaren nazioarteko Dokumentu Markoarenak ere\*. Helburu hori lortu nahi duten erakunde eta instituzioekin lan egiten du.

Haur eta gazteen tratu txarren prebentzioari aurre egiten dio kontzientzia hartze, borondate eta sentiberatze egokiaz eta lehenetsuneko helburu bezala adingabearen interesik gorena jartzen du. Hauek dira, horretarako, lerro programatikoak:

- Pertsona guztienganako duintasunaren eta errespetuaren kultura landu eta hedatu, adin, gaitasun eta trebetasunaren eta uste osoen gainera.
- Pertsona, herri eta kultura guztien aldeko senidetasun, askatasun eta berdintasunaren oinarritzko balioak sustatu.
- Adingabeak pertsona aske direla kontutan izanik, bere autonomia eta autoerrealizazioa sustatu, beraiek parte hartzeko, entzunak izateko eta aintzakotzat hartuak izateko eskubideak errespetatu.
- Adingabeak pertsona egoki, arduratsu eta Fokolareen Mugimenduko elkartasuneko espiritualtasunarekin konprometitutakoak direnen esku utzi.
- Aisialdi eta hezkuntza jarduerak garatzeko adingabeak ingurune seguruak eraiki eta eskaini.
- Naturarekin harreman harmoniatsua eta arduratsua sustatu.

Lan hori aurrera eramateko tresna hauetaz baliatuko da:

1. Hautzaroaren eta nerabezaroaren ongizate sustapenaren eta babesaren Dokumentu Markoa.
2. Prebentzio edo jarduerarako protokoloa. Bertan jasotzen dira:
  - a) Babeserako eta prebentziorako prozedurak.
  - b) Jarraitu behar diren mekanismoak eta prozedurak hauteman edo/eta jakinarazi eta gero koordinazioa eta jarduera erraztuko duten nazioko eta tokian tokiko egitura baten bitartez.
  - c) Programa hezigarri espezifikokoak Mugimenduaren markoan adingabeak laguntzen eta haientzat heziketa jarduerak eta aisialdirako jarduerak prestatzen dituzten pertsona guztientzat.

Protokoloak tratu txartzat ulertzen du: *“Ekintza, omisio edo tratua zabarra, ez ustekabekoa, adingabeak eskubideak eta ongizatea kentzen dizkiona, bere garapen fisiko, psikikoa edo soziala ordenatua mehatxatu edo oztopatzen duena, eta horren egileak pertsonak, instituzioak edo gizarte bera izan daitezke.”* (Haurren Behatokia, 2008).

Tratu txarren mota eta era ezberdinei ekiten die:

- Tratu txar fisikoak
- Arduragabekeria eta abandonatze fisikoak eta emozionalak
- Sexu-abusuak
- Jazarpena eta era guztietako ziberjazarpena



Tratu txar edo/eta jazarpenen salaketa jartzeko, aholku edota laguntza behar izanez gero Espainiako Fokolareen Mugimendua sortu duen posta elektronikoa honetara idatzi dezakezu: [protecciondelmenor@focolares.org](mailto:protecciondelmenor@focolares.org)

\* [Linee guida del Movimento dei Focolari per la Promozione del Ben-essere e la tutela dei Menori](#)